

**MUNDUA EUSKAL ETA ZERUA ZABAL.
TESTAMENTU BARRIA
EUSKARA BATUTIK BIZKAIERA BATERATURA**

1. KARMEL ALDIZKARIA

Ederra da oso -nahiz eta berezkoa baino ez den eroso-KARMEL aldizkarian idaztea. Da halako jakitunen foroan, euskaltzaleen parnasoko lurretan turismoa egitea lakoa. Leku horretan denak dira nor, eta ezinbesteko ez da inor. Berba laburretan, harribitxia da, Karmel-harria, edo orria, utopian duena esperantza eta jatorria. Eta aizan, lagunarte atsegina den elkar-tea, harbildua, beti ere, euskaltzaleon joan-etorrirei hurbildua. Nola edo zelan ez, beraz, idatzi ametsak trukatzeko, albisteak herritartzeko, geroa oraingoratzeko, gazteak zuhurtzeko eta zaharrak gaztetzeko, munduan euskal eta zeruan zabal izateko?

Goiko pasarte hori idatzi eta luzaroan beratan laga ostean, berriro eskuetan hartu dudanean, ohartu naiz oin zabaleko piramidea eraikitzen abiatu nintzela. Beraz, oreka egiteko ia legamia hutsez geratzeko arriskua izan arren, apaldu egin dut artikulua eta piramidea triangelu ekilateroaren itxuratik isoszele-
ra etorri da.

<p>JOANEN LEHENENGO EPISTOLA</p>	<p>JOANEN LEHEN GUTUNA</p>
<p>Begizko testiguaren iragarpena 1,1 Hasierarik zan biziaren hitza, entzun eta geure begiz ikusi doguna, begiratu eta geure eskuz ikutu doguna, iragartzen deutsuegu. 2 Izan be, bizia agertu egin zan, ikusi egin dogu eta beronen lekuko gara; Aitarekin egoan eta guri agertu izan jakun betiko bizi hori iragartzen deutsuegu. 3 Ikusi eta entzun doguna bera deutsuegu zuei ere iragartzen, zeuok be gugaz alkartasunean bizi zaitezen. Eta gure alkartasuna Aitagaz eta beraren seme Jesu Kristogaz da. 4 Eta gauzok idatzi, gure poza betebetea izan dadin idazten doguz.</p>	<p>Begizko testiguaren iragarpena 1,1 Hasieratik zen biziaren hitza, entzun eta geure begiz ikusi duguna, begiratu eta geure eskuz ukitu duguna, iragartzen dizuegu. 2 Izan ere, bizia agertu egin zen, ikusi egin dugu eta beronen lekuko gara*; Aitarekin zegoen eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu. 3 Ikusi eta entzun duguna dizuegu zuei ere iragartzen, zuek ere gurekin elkartasunean* bizi zaitezten. Eta gure elkartasuna Aitarekin eta honen seme Jesu Kristorekin da. 4 Eta gauzok idatzi, gure poza* betebetea izan dadin idazten ditugu.</p>

2. MUNDUA EUSKAL

Euskara estandarra eta euskalkia

Artikulu honetarako, behin honezkero topiko bihurtu den euskalkiaren gaia mahairatuko dut, jakinik gonbidatuen artean aldeko, aurkako nahiz bost axolako taldeetakoak batuko gara. Borondate itzela ipintzen dugu euskararen ateko giltza aurkitzeko, baina, antza, ez dihardu hain txairo dantzatzen biko-teak, euskara batuak eta euskalkiak.

Datorren urtean, 2018an 50 urte beteko dituen euskara batuak autobide zabalak ireki ditu, baina dirudienez lehengo zenbait errepide bazterrera lagata, dela konpondu barik dirautelako, dela zaharkitu egin direlako. Autobide zabalak desegin egingo ditugu? Ez, kontxo! Errepide zaharrak konponduko? Zergatik ez?

Teoriari lotzen bagatzaizkio, Rudolf Pieter Gerardus de Rijk hizkuntzalari goien mailakoari egin nion itaunak argi gaitzake:

-Zelan jakin dezaket, Rudolf jauna, euskara batua non bukatzen den eta non euskalkia hasten? -itaundu nion Areatzan Añibarroren gainean Euskaltzaindiak eraturako jardunaldiari, 1998ko uztailearen 24an.

Ingeleseztan jaso nuen erantzuna bikote-laguna-eta aldamean zeuzkan-eta:

-Hizkuntza eta dialektoa non diren hasten eta non amaitzen bagenek, hizkuntzalaritza guztia argiturik legoke.

Halandaze, jakitunek jakitunago izaten ahalegindu beharko dute.

Kontua da, ahozko euskaratik idatzira aldea dagoela –hala bizkaieran nola batuan– zerbaitegatik idatzi zuen Mikel Zarate aspaldiko bezain betikoak IDATZ ETA MINTZ liburua. Ahozkotik idatzirakoaz gain, euskalkitik euskalkirako distantzia ere hor da. Horretarako frogaraz da Euskaltzaindiko EGLU, “Euskal Gramatika. Lehen Urratsak” bilduma arakatzea. Beraz, euskalkiek eta euskara batuak urte luzeetan beharko dute bizikide izaten aritu. Euskara batuko jatorrizko testuaren eta euskalkien arteko talka, baita ulergarritasuna ere aintzat hartzeko testu proposa da Joan, 6, 16-17:

Euskara batukoa: *Arratsean, Jesusen ikasleak aintzirara jaitzi 17 eta, txalupara igorik, aintziraz bestaldera abiatu ziren, Kafarnaumerantz. Ihuna zen jadanik, eta **artean** Jesus ez zen beraiekin.*

Bizkaierazkoa: *16 Iluntzean, Jesusen ikasleak itsasora jatsi eta, 17 txalupara igonda, itsasoaz beste aldera abiatu ziran, Kafarnaum aldera. Iluna zan ordurako, eta **oraindik** Jesus ez zan bareengana beldu.*

Beltzez doazen terminoen artean **oraindik** da aintzat hartzekoa, konturatzeko badela aldea euskara batu horretatik bizkaierara, **artean** bizkaieraz beste esangura batekoa da-eta.

Euskararen erabileran, bestalde, aitzineratu ahala, garbitu ere egin dira bideetarik asko. Jadanik, euskara batu barik ezin bidaia genezake herririk herri, ezta arlorik arlo ere euskaldunok. Jean Louis Davant Zuberora urrunekoa eta kutuna dugu-naren pasarte dakart frogarako:

*Horiek ez dute ezer ulertu. Uste dute batua sartu nabi dugula tokiko euskararen lekuan. Baina euskaltzaleek badakite ez dela hala. Zubererak bere lekua atxikitzen du baina batuari esker beste euskaldun guztiekin gurutzatzen abal gara, denek elkar ulertzen dugu. Gero, goi mailako gaitan batuaren beharra dugu. Zubereraz hitz berriak batutik hartzen ditugu. Ni olerkiak idazten gusturago nago batuan, hor edozein hitz hartzen abal dut, Zuberootik, Bizkaitik... adibidez errima batean gabe eta dabe parean jartzen abal ditut. Batuak zerumuga zabaltzen digu eta maila goratzen. Zubereraz gai muga-tuak lantzen ditugu. Zientzietan euskaraz egiteko, batura jo behar dugu”.*¹

Bizkaierara EABtik –Elizen Arteko Bibliatik– dakartzagun berba asko euskara batutik datoz –eta bizkaieraren lurretatik haragoko berbak dira–. Halandaze, ikasi egin behar dira, ze gipuzkeran, kasurako, arruntak izan arren bizkaierakoarentzat kultuak edo jasoak gerta litezke, edo kontrazentzuzkoak:

Korintoarrei II 6,4: *baizik eta gauza guztietan Jainkoaren zerbitzari garela agertzen dugu, jasaten dugun guztian **era-***

¹ DEIA egunkaria, 2016-11-26.

manpen handia erakutsiz: atsekabe, beharrian eta estuasunetan.

Korintoarrei II, 6,4: **ezpada ze**, gauza guztietan Jainkoaren zerbitzari garala agertzen dogu, jasaten dogun guztian **eroapen** handia erakutsiz: atsekabe, beharrian eta estutasunetan.

Davanten aipamena gogoan, egia da eredu aldetik jatorrizko euskalkiari iturri bilakatu zaiola euskara batua; erabiltzen dela erabiltzen den euskalkia, masterra, corpus-eredua euskara batua gertatzen zaiola; idazterakoan kriterioa dela: bizkaiera batuari zenbat zaion hurreratzen edo zenbat aldentzen, ze XXI. mendera ezker euskalkia –teorikoki autonomia ez zena– praktikan ere ez da.

Areago oraindik, Xabier Paiak –geroa oraingotzen duen etarikoak– du galdetzen, “Ea zergatik zuen hain leku txikia euskalkirik erosten ez zuten hiztunen hizkerak bertako irrati-telebistetan”.²

Egiaren izenean, gutariko batzuk uste genuen han 1977an –oraindik Bilboko Unibertsitate zen Magisterio Eskolan, Ekonomika eta Enpresen Fakultatean eta Arte Ederretakoan Euskarako Klaseetako Koordinatzaile ginenok– herrietako euskaldunen seme-alaba jatorrak urbeetako seme-alaba batukumeak sortuko zituztela. Behar bada, ez da hala gertatu; ez da ia batu-oihartzun handirik hirietako kalearteetan, ez goiko kalean, ez erdikoan, ezta beheko kalean ere. Orduan, seguru asko, pentsamolde okerra da uste izatea euskalkia euskara batuarekin “de brazete” ez joaterena dela errua; biribilketarik soilenak ere saioa eta ikasketa eskatzen baititu, zeren ama-hizkuntzarik ama-hizkuntzena darabilenak ere eskolatu behar gorria baitu.

Euskalkia ikasteko premia, askoren artekoa naiz joaldunen joareak baino ozenago errepikatzen dihardudana, euskal-

² XABI PAYA: BERRIA, 2017ko azaroaren 7a.

ki ikasi gabea darabilena –ahoz zein idatziz– analfabeto dela bere dialektoan, eta eskolan batuaren aldamenean modu praktikoan irakatsi izan dugula eta irakats daitekeela euskalkia. Esate baterako gaur bertoko adibidera jaitzirik: ANAYA-HARITZA irakurketa liburuan, 6 urteko ilobarenean dator, B letra ikasteko: “Bi bide, bi begi...” eta itauntzen diot:

-Maia, zure amamak zelan esaten dau **bi bide, bi begi?**

-“Ba, **bide bi, begi bi**”.

Proiekta dezagun sintagma hori irakaskuntza osora eta euskalkia bezainbat landuko dugu euskara estandarra. Zein da eragozpena hala jokatzeko? Borondatea? Metodologiarik eza? Bost axola izatea? Hartan ere, irakaskuntzako tenpluetan ezjakina izatea goraiapatuko ote dugu?

Finean eta buruan, zer da behar eta gura duguna? Euskara bizi dadin, erabilia izan dadin, hala lanbidean, nola lagunartean. Beraz, funtzio guztietarako erregistroak beharko ditugu eskura. Horretarako euskalkia txoiloa –euskal berba Mikel Zarteren arabera– da.

Bizkaiera: abadeak legez berba egitea

Testamentu Barrirako egokitzapenetan, bizkaiera bateratuaren barruan, Elizaren Bizkaiera izan dugu ardatz. Esate baterako, Karmelo Etxenagusiak eta Lino Akesolok 1972ko MEZALIBURUAN *dadin* badarabilte eta ez *daiten*, guk aintzat hartzen dugu, eta *dadin* ere hartzen dugu. Era berean, Jaime Kerexetak 1974an *dagian* badakar (Joan 15, 2: *frutu gebiagio emon dagian*) guk *dagian* darabilgu.

Horrez gainera, Luis Baraiazarrak *dauz* baino *ditu* badarabil, guk *ditu* darabilgu gehienetan, onartzen dugulako Markinako eta Meñakako eskolak lotzen dituela bere idazlan entziklopedikoetan.

Horri guztiorri gehitu behar zaio Mendebalde Kultura Alkartearen mende laurdeneko ekarpena, baita Euskaltzaindiarena eta Labayrurena ere. Aipatu berri dugunaren adibide esanguratsua da **judegu (judu)** berbaren erabilera. Karmelo Etxenagusiak eta Lino Akesolok **judegu** darabilte. Orduan, guk Euskaltzaindikoko Hiztegi Batua begiraturik hauxe topatzen dugu: **judegu** iz. *Bizk. Judua*. Ondorioz, **judegu** ere euskara batua denez, erabili egin dugu.

Orain arte esandakotik gora, euskaldun zahar garenok bereizteko gai gara: euskara batukoa zein perpausa, sintagma edo berba den; hau da, etxetik ekarri ez duguna zer den eta eskolan ikasia zer dugun. Beste askok, ostera, ez du hartzen hizkuntza-eskema hori beretzat; badaki elementu batzuk euskalkiko direna eta ez euskara batuko, baina ez du lantzen bizkaiera azpisistema oso moduan. Horixe izan da, besteak beste, a+a= ea sistematikoki ez erabiltzeko arrazoietariko bat, ze, gainera, ez dago bizkaieraz, patxadaz eta jator idazteko gai den idazle asko –onak bai baina–. Orain arte Elizako testuak izan dira eredu gotorra, eta adin batekoentzat nahiko ezaguna. Baina mundu hori urrun dago gaurko gizarteagandik.

Ostera, heziketa akademikoaren antipodetan, begira zelako arrakasta daukaten ukitu “linguistiko etnikoek” gure gazteen artean. Fonetismoak, laburdura behartuak, lokalismo markatuak-eta azpimarratzen dabilta gazte asko, hizkuntzaren barruko egokitasunari larregi begiratu barik. Goratu egiten da, baina benetan landu barik. Ulermena, bestalde, ez da kriterio bakarra batutik bizkaierara itzultzean. Adibidez: Jn 19,23an: *“Esan eutsoen elkarri... Elkar* idatzita ondo ulertzen da esanahia, baina **elkar** ez da bizkaiera. Bestela, ulermena balitz oinarri bakarra, bizkaiera lirateke: *naiz, berria, pareta, eta abar*. Edonola ere, bizkaiera baino bizkaierarako aukerak daude: dagokio / jagoko eta abar. Frogarako, egin diezaiozun so, batetik, Karmelo-Linoren-eta IRAKURGAI LIBURUEI Kerexetaren EUSKAL BIBLIAGaz erkatzeko, eta, bestetik, Baraiazarraren li-

buruari: NIRE UMETAKO MEÑAKARI; edo Xabier Amurizak ANBOTO aldizkarian gauzatutako moldeari. Berez, Bizkaieraren barruan badaude kilometro batzuk eskualdetik eskualde-
ra. Jainkoak gura duen beste urte bete ostean Euskaltzaindiko Jagon Sailean, batez ere, Euskalkien Batzordean, oharrez bete izan dut saioetako koadernoan Manu Ormazabalek Arratian, edo Jon Aurrek Gernikaldean ezagutzen eta erabiltzen dituzten hiztegi zein forma berezietz; sarriegitan oraindik corpusera jaso bakoez.

Gai honetan, beti ere, ahaztu egiten dugu zenbaterainoko eragina dakarren elebitasunak euskalkiaren eta estandarraren arteko talkan.

Guk hizkera ulergarrian itzuli dugu bizkaierara, entzun ahala uler dadin. Horretarako argumentuak: Korintoarrei Lehen Epistolari 14,14-20tik ere jaso ditugu:

Korintoarrei I,14,14: *Berbeta arrotzez otoitz egiten badot, nire espirituak otoitzean dibardu, bai, baina adimena fruturik barik gelditzen da. 15 Zer egin, orduan? Espirituaren eraginez otoitz egin bai, baina adimenaz be bai. 16 Esker oneko otoitza Espirituaren eraginez bakarrik egiten badozu, dohai hori ez daukan entzule hutsak* **zelan erantzungo deutso zure esker oneko otoitzari, zer dinozun ulertzen ez badau?** 17 Ederra izango da, bai, zure esker oneko otoitza, baina besteari ez jako lagungarri gertatuko. 18 Eskerrak emoten deusadaz Jainkoari, zuek baino berbeta arrotz gehiagotan berba egin neikelako. 19 Halan be, alkartea batuta dagoanean, gurago dot besteentzat irakasgarri izango diran bost berba ulergarri esan, bizkera ulertezinean hamar mila baino.*

Elizen Arteko Biblia eta Testamentu Barria:

Guk bizkaierara moldatutako Testamentu Barriko hizkeraz jabetzeko, alde batetik, JESU KRISTOREN EBANJELIOA –jada-

nik argitaratua– hartu behar dugu gogoan: “Zuk jakingo dozu-
nez, liturgian ez dira azaltzen Ebanjelioen atal guztiak. Ba,
Erroman dagoan Meza Liburu barri horretatik Liturgian ager-
tzen diran ebanjelio atal guztiak jaso ditugu, ebanjelioetako
ehuneko laurogeita hamarra inguru eskuratuz, eta gainontze-
koa, Mezako irakurgaietan agertzen ez dana, ehuneko hama-
rra edo gitxiago beharbada, EaBtik hartu dogu, horretara lau
ebanjelioen oinarrizko testu osoa lortzeko. Eta horixe izan da
gure iturri-testua eta ez zuk behin eta barriro aitatzen dozun
80ko hamarkadakoa” idatzi zuen Lontzo Zugazagak ³.

“Bestetik, gainerako Testamentu Barrirako: 1994an Elizen
arteko Biblia (EaB) argitaratu genduan, euskara batuan.
Urrats ikaragarria izan zan, bai itzulpen zientifikoa eta jato-
rriko testuen itzulpen zuzena egin zalako, eta baita euskara
batuaz egin izanak aurrerakadaz eta gaurkotasunez horni-
tzen ebalako”⁴.

Beraz, une baten ere ezin ahaztuko dugu, bizkaierara eka-
rri dugun Testamentu Barria euskara batuko Elizen Arteko Bi-
bliatik ekarria dela neurri handian. Joxe Arregik oraintsu idatzi
duenez: “Lehen Biblia osoa euskara batuan⁵: Ez da agian Eli-
zen Arteko Bibliaren ezaugarririk garrantzizkoena izango as-
korentzat, baina euskara batuan egin den Bibliaren lehen
itzulpena izatea ez da inondik ere gutxiestekoa, eta zer esanik
ez duela 25-30 urte (...). Alfabetatua den eta erdi mailako kul-
tura duen gaurko edozein irakurlek erraz eta eroso irakurtze-
ko moduko itzulpena esakini nahi izan genuen”.

Irakurlea erraz ohartuko da ondorioz, gu Elizen Arteko Bi-
bliari eta Erromara bidalitako Mezako Irakurgaiei tolestu ga-
tzaizkiela oro har. Hala ere, -kolorez markatu ditugun bizkaie-
rako aldaketak- ugariak dira.

³ Lontzo Zugazagak KARMEleko artikulua aipatua.

⁴ Lontzo Zugazagak KARMEleko artikulua aipatua.

⁵ Elizen Arteko Biblia, 23 urte eta gero, in HEMEN 55, 2017.

Esandakoaren adibidea Eginak 9, 4an idazten da: *Saulo, Saulo, zergaitik pertsegitzen nozu?* Berset berbera Kerexetak hola dakar: *Zergaitik narabilzu aurrean?* Guk **narabilzu** jatorra sartzeak EABtik urruntzea balekar, bere horretan uzten dugu.

Beti ere, entzun ahala ulertzea bilatu izan dugunez, irakurterraza izatea saihestu barik, garbizalekeria eta euskararen erabilera astuna baztertuz moldatu dugu bizkaierara.

Jakina, taldean egin ditugu aldaketak. Lontzo eta biok izan gara motorrak, baina taldeko izan ditugu Karmelo Etxenagusia, Lino Akesolo; Kerexeta eta Martzel Etxehandi –besteak beste–. Ze berbako ez, baina perpausko haiengana zuzendu gara, jenialitate asko eta ederrak dauzkate-eta; maisu klasikoak dira-eta.

Liburu eta interneteko lagungarrien artean, SINONIMOEN HIZTEGIA-ANTONIMODUNA. Adorez taldekoa behar-beharrezko gertatu da urruneko-hurbileko sinonimoen artean aukera egiteko. Gainera, OROTARIKO HIZTEGIA, Euskaltzaindikoa, bizkaierako berben mugak eta adierak argitzeko tresna guztiz aberatsa suertatu zaigu, baita Labayru hiztegia ere, OROTARIKO HIZTEGIAN ez datozen bizkaierazko berbak argitzeko.

Lekuz kanpoko ohartzat hartu daitekeen arren, ez da baztertzekoa dakargun aipua:

“Elebitasunak ekarri zer dakar? Kalean kartelak euskaraz eta gazteleraz jartzen ditugunean, *diskriminazio* berbea ulertu ez arren, alboan *discriminación* datorrenez, ulertzen da mezua, baina bakarrean doan testuan, probarako ere ezin sartu da *bereizkeria* sarritan ze, euskaldunak ez luke ulertuko. Holako testu elebakarrean –herritar guztientzat– *diskriminazioa* sartu behar da”⁶.

⁶ Paia, Xabier.

Bikoiztasunez zein aniztasunez ere jokatu izan dugu: *eskoi* edo *eskuma* erabiliz, kasurako; edo *zituezan/zituen/ebezan* erabiltzean. Nork erantzun diezaioke eta zer esanez Lino Akesolori IRAKURGAI LIBURUETARIK Ieko 189an ipintzen duenean: *Ango andra aundiki batek **bazkaiten** eroan eban*. Badiara, dena den, eskualdeko-eskualdeko diren formak ere: *ba-lekinai* bezalakoak. Galdera da, holakoak ezin dira idatzi euskara batuan, baina bizkaieran ere ez?

Bizkaieratiko ekarpena gure TESTAMENTU BARRIAN

Ahalegin handia egin dugu Jacinto Iturbek⁷ aztertzen duen arloan hutsik urrienak egiteko. Holaxe arrazoitzen du: “Formalizazioak hiztun onek hitz egiterakoan erabiltzen dituzten moduak eta erak baztertu egiten ditu. Adibidez, Bizkaian hiztun onek zera esaten dute”:

Lekeition: *Liburua ekarri **nabe***.

Arratian: (Ni) kotxez ekarri **deustie**.

Bizkaiko mendebaldean: Ez dakit etorriko **bada**.

Edozelan ere, gure ekarpen guztia hona ekartzea zeregin erraldoia gerta litekeenez, adibiderik adierazgarrienetariko batzuk baino ez ditugu aipatuko.

-(e)na morfema konpletiboa da, beste aldetik, bizkaieraren aspekturik bereizgarrienetarikotzat jo izan den ezaugarri bat, nahiz eta euskalki honen bereizgarri gebienekin gertatzen den bezala, proposatu den bezain “partikularra” edo “bizkaitarra” –esklusibismoz ez den⁸.

Badakigu...-(e)na, EAB-n ere badator; Martzelek, ostera, ez darabil lapurterako BIBLIAN : Guk, normaltasunez darabilgu

⁷ Mendebalde Kultura Alkartzerako idatzi duen txosten oraindik argitaratu bakoa.

⁸ Roberto Manjon-Carlos del Olmo-Joseba Gordo: Frai Bartolomeren -NA konpletiboa

Korintoarrei I 8,4an: *Beraz, zer esan idoloiei eskeinitako okela jateaz? Badakigu sasijainkoak ez **dirana** ezer be munduan eta Jainko bat baino ez **dana**.*

Bizia eta **bizitza** ez dira Elizen Arteko Biblian modu sistematikoan bereizten; Lontzok eta biok bai, ostera. Erabiltzearen aldeko arrazoia usadioa izan da, hala delako erabilerara. Erramon Arkarazok 2017-01-15ean honela zioen: *Landako Durangokoa hiru baserri egozan lur eremuan eraikita dago. "Hiru bizitza-etxe egon ziran leben hemen, baten neure osaba zesteroa"*.

Zaldi-karro: Euskaltzaindiak *Herr.*, hots herritarrek erabilia, *b.* hobetsi zalgurdi dakarren arren, etxean aita letxero ere bazenez, eta zaldi-karroa beti erabili izan zuenez, eta gurdia idi zein behiekaz erabili izan delarik, guk eutsi egin diogu tradizioari. Beraz: Apokalipasia 9,7: *Gudurako prest **egozan** zaldien itxura **euken** matxinsaltoek; buruan urrezko **koroi antzekoak** eroiezan; **euren** aurpegiak **gizon-aurpegiak lakoak ziran**, 8 **ulea** emakumeena **lako**, eta hortzak lehoiarenak **lakoak**; 9 burdinazkoak **lako** bularrekoak **eukerzan**, eta hego-hotsa gudura **arrapaladan** doazen **zaldikarro** askoren zarata **lako** zan.*

Ordura artean:

Nik legez Euskal Hizkuntza eta Literatura irakatsi dugunok euskaldun zaharren erabilerari entzungor, *gero arte* ikasgelartu izan dut; harik-eta ingurukoek hutsik barik esaten zuten *gero artean* aintzat hartzen hasi nintzen arte. Izan be, Jn 20,9an: *ordura artean* dakarte Karmelok eta Linok IRAKURGAI LIBURUETAN. Jator!

Harako:

Bitxia da zelan norberari senak eskaturik *harako* aurrekaria gehitu testuari, eta *harako* hori berberori topatzea berehala

Karmelo+Linoren 1972ko IRAKURGAIETAn ere. Guk, Jn 19,39an: *Etorri zan Nikodemo be –**harako** behin baten gauez Jesus ikustera joan zan ba– hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nabastura ekarrela.*

Gudari/soldadu:

Elizen Arteko Biblian, Lau Ebanjelioetako zatian behin ere ez dakar *gudari*, bai, aldiz, *soldadu*. Marcel Etchehandyk la-purterako BIBLIAN *soldadu* badarabil, eta Leizarragak: *gendarmesetarik batek...*Guk, hala ere, sartu egin dugu. Horretarako bidea, batetik, Karmeloren eta Linoren 1972ko testuak eman digu, badakar *gudari*-eta. Bestetik, Euskaltzaindiko Definizio Hiztegiak, ezen adibideak berdintsu baitatoz, batean *soldadu*, hurrengoan *gudari*.

Euskal genioa:

GENIO Y LENGUA Justo Mokoroaren liburu ezinbestekoa gogoan dela ere jokatu dugu. Euskara batutik bizkaierara moldaketa egin dugunok, umezaroan ez eze, bizitza aro guztietan jarraitu izan dugu euskaldun, euskaldunen arteko gizartean bizitzen. Azken baten, gehiago dugu elebkarretik elebitasunetik baino. Dena den, Testamentu Barria bizkaiera-ra bihurtzeko berbeta ez eze berbetak jakin behar izan ditugu. Hori ba, euskal arima gorderik. Esate baterako: Aposto-luen Eginak 27, 28-29:

28 Agripak esan eutson Paulori:

–Apur bat gehiago, eta kristau bihurtuko nozu.

29 Eta Paulok hari:

–Apur bat nahiz apur bi, Jainkoak gura izan dagiala, zu ez eze, gaur niri entzuten deusten guztiak be, ni nazana izatea... katea honeetatik aparte!

Idatzia/idatzita:

Antzerako jokabidea erakutsi dugu honetan ere: Joan 19, 22 *Pilatok erantzun eban: -«Idatzia bego **idatzita!**» (Ez idatzia bego idatzia).*

Euskalkiaren muga zelan jagon?

Honetan, Orotariko Hiztegiak sarri lagundu izan dugu:

EGINAK 20, 27an **adierazi** agertzen da. Berez herritar bizkaierazkoak ez daki, behar bada, baina Biblia kultua denez, nahiko da Azkuek, Erkiagak eta Añibarrok -kasurako- erabiltzea Bibliako itzulpen bizkaierazkoan, guk Bizkaikotzat hartzeko.

Hona beste exenplu bat:

Egintzak 7, 10: *Larria zan egoera eta gure asabek ez euken jatekorik. Asaba ezezagun gerta dakieke, baina bizkaierako tradiziokoa da; **arbaso**, ostera, Lapurdi, Behenafarroakotzat hartzen da Orotarikoan. Beraz, aukeran bizkaierako tradizioari lotu gatzaizkio.*

Hiztegi Batuaren eragina:

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko laburduren artean agertzen den BIZK. en erabilera euskara baturakoa guztiz baliozko da bizkaierak -edo lapurterak-eta- lekua izan dezaten euskara batuan. Nire iritziz, printzipio linguistiko berbera aplikatu beharko litzateke euskalkirako ere, kasu honetan bizkaierarako. Esate baterako: Euskara batuan zilegi bada **judu** eta **judegu** erabiltzea edo **eztei** eta **eztegu**, gauza berbera bizkaieraren barruan.

Sinonimia

Harrigarri da oso euskara batutik euskalkira aldatzean, zenbateraino ugaritzen diren sinonimoak euskalkiko testuan:

*16,1 Jesusek esan eutsen ikasleei: «Gizon aberats batek **etxejagolea** eukan, eta berau ondasunak alperrik galtzen*

*ebilkola jakitera emon eutsoen. 2 Deitu eta esan eutson: “Zer da zutaz entzun dodan hori? Emoidazu **etxezaintzaren kontua**, ez zara aurrerrantzean nire ethezain izango-eta”.*

Iparralde-Hegoalde:

Gaztelararen menpeko arriskutik askatzeko, zenbait testutan Iparraldeko euskaldunak lagun gaitzake.

Eginak 18,27: *Akaiara joateko asmoa agerturik, senideek **animatu** egin eben eta hango dizipuluei idatzi eutsien, barrera ona egin egioen. Han, Jainkoaren graziari esker, guztiz lagungarri gertatu jaken fededunei.* Berset honetako **animatu** Hegoaldekoa izanik ez dakar Martzelek –hortarat sustatu zuten– baino.

Grekoa fielato:

Elizen Arteko Bibliaren eta Testamentu Barriaren artean

Artikulu honetako edukia ganoraz eta osotasunez asimilatzeke, harako Lontzo Zugazagak Karmel honetan idatzi zuen artikulu luze-sakona behar da izan gogoan⁹, ze hemengoa han ez datorren arren, hangoa jakintzat emoten da, izan ere, jakingarri eta jakin beharrekoa gerta liteke-eta. Lontzo, gainera, ardatz eta oinatz izan da, eta da, Bibliako jakintsuen artean Euskal Herrian. Berak kudeatzen duen tradizioari esker jabe gaitzke **berba egina** zein den, eta zein ez. **Ohikune**, esate baterako, **berba egina** da liturjian: Hebrearrei 9, 1. Halandaze, ez luke edukiko zentzurik termino horren ordez **zeremonia**, **errito** edo halakoak erabiltzeak; esaterako batean.

Azaleko intelektuala litzateke pentsatzen duena Biblia euskara batutik bizkaierara aldatzea grekorik ezagutu barik gauza litekeela.

⁹ LONTZO ZUGAZAGA: Jesukristoren Ebanjelioa liburuaren inguruan “Iturrikori”. Karmel 2016 -1 (293).

Grekoaren eragin zuzena

ELIZEN ARTEKO BIBLIAN, *Mateo 23,25*ean: <<Ai zuek, le-gemaisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kan-potik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta **gutiziaz** gai-nezka beterik dauden bitartean!

TESTAMENTU BARRIAN: *25 Ai zuok, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen do-zuez, barrutik lapurretaz eta **grina txarrez** beterik dagozan bitartean.*

Gutiziak ADOREZeko Sinonimoen Hiztegian 23 baliokide dituenez, zein hartu grekora jo ezik? Kasu honetan sinonimoa baino grekora jota esaldi bera da aldatu beharrekoa.

Kultura:

Grekoa kulturaren gailurrean denez, Bibliako berben auke-rarako ere aurre-aurrean eduki behar da. Korintoarrei I 8,12an **erorbide** baino **eskandalu** eta **eskandalizatzeko** hartu dugu, grekoaren indarrez.

EABn:

Senideen aurka bekatu eginez eta beraien kontzientzia hezigabeari kalte eginez, Kristoren aurka egiten duzue bekatu. 13 Beraz, nire senideari janariren bat jatea erorbide gertatzen bazaio, ez dut inoiz haragirik jango, nire senidea erorbidean ez jartzeko.

Gure Testamentu Barrian:

*Senideen aurka pekatu eginez eta euren kontzientzia bezi-bakoari kalte eginez, Kristoren aurka egiten dozue pekatu. 13 Beraz, nire senideari janariren bat jatea **eskandalu-bide** gertatzen bajako, ez dot inoiz okelarik jango, nire senidea ez **eskandalizatzeko**.*

Bigarren adibidea, estadioan versus kiroldegian:

Testamentu Barrian: Korintoarrei I, 9,24: *Danok dakizue **estadioan** partaide guztiek egiten dabela lasterka, baina saria batek bakarrik jasotzen dauala.*

EABn: *Denok dakizue **kiroldegian** partaide guztiek egiten dutela lasterka, baina saria batek bakarrik jasotzen duela. Beraz, egizue lasterka, irabazteko eran.*

Hirugarren adibidea:

*Joan 6,12: Ase ziranean, Jesusek esan eutsen ikasleei: «Batu egizue geratu diran zatiak, ezer galdu ez dadin». Hemen ez da kontua **hondarrak** edo **papurak** edo **hondakinak** itzulzea, ezpada ze, jatorrizko grekora jo ezkeror, han **geratu diran zatiak** esaten dala.*

Laugarren adibidea:

Eginak 8,26an dugu aukerako beste adibidea. *Eta han ikusi eban etiopiar eunuko bat. Iren* dakar EABk, baina Leizarragak, American Bible-ek eta BACek espainolez: **eunuko** hautatzen dute. Bestalde, **eunukoa** ez da derrigor **irena**, ministro preferitua be badaiteke.

Boskarren adibidea:

Sanedrin/ judu-biltzar: hala hebreeraz nola grekoz teknolekto gorpuztua da **sanedrin** berbea; halandaze, ulermenaren mese-detan jokatuta ere ez dugu hizkuntza maila apaldu, jatorrizko Erromarako testuan **judu-biltzarra** datorren arren.

Latina:

Latinaren kultura-eragina ere zaindu dugu. Hiru termino, behintzat eskribitu izan dira: **zirkunzisia/ erdainkuntza/ ebakitza**: Ostera, Orotariko Hiztegian honela dator: XVI, XVII, XVIII. mendeetan erabilia dela **zirkunzisia**. Euskaltzaindiko

HBk badakar. XX. mendean, ostera, desagertu egiten da ia. Baina, horren ordez Iparraldean: **ebakitza** darabil Martzelek Biblian, eta EABk **erdaikuntza**. Guk **zirkunzisia** jo dugu.

Teknolektoak:

Teknolektoa hizkuntza jakin batek daukan baliabideen multzoa da, gure gai honetan, kasurako, aditu direnen artean komunikazioa errazteko hitza. **Estasi** ren eta **goi-ikuskari** berbaren artean **goi-ikuskari** EABkoa laga dugu: Eginak 22,17: *Jerusalem era biburtu nintzan eta, tenpluan otoitzean ni barduala, **goi-ikuskari** bat izan neban*. Ostera, Elizen Arteko Bibliarena aldatu egin dugu Eginak 22, 20an, **lekukoa** baino **martiria** jarritz. *Eta Esteban zure **lekukoa** hil zutenean ere, dakar EABk; Kerexetak, ordea, **autorle ipini du***. Hala ere, Martzelek oharra egiten du orri-oinean esanez grekoz **martir** dela.

Era horretara jokaturik, ideia pareaz azpimarra genezake:

Batetik, jatorrizkotik aldentzean, sakabanatu egiten da kontzeptua bera ere.

Bestalde, itaun hau egin genezake: argiagoa da mezua jatorrizko teknolektoa kenduta? Hara: *26koa. Berba honek entzutean, ehuntariak guda buruari jakinarazi zion*. Zeini deritza zu argiago, irakurle, **ehuntariak guda buruari** ala **zenturioiak tribunoari**? Guk bigarrenera jo dugu.

Bibliaren eboluzioa:

Egiten dugunean Testamentu Barriaren itzulpena 2014. urtean, gura dugu edo genuke behin betiko itzulpena izatea, baina ez euskara bera, ezta testuen ulertze kulturala ez dira behin betikoak. Eta esaten dugunean: ai ledi 10 urterako baliokoa! ezerezkeria diogula pentsa genezake ze, lehengo mendeetan 100 urteko denbora genuen burutan, orain denboraren mendean daukaguna geure burua da.

BIZKAIERA

AKESOLO- ETXENAGUSIA 1972	KEREXETA 1976	ZUGAZAGA- GOIKOETXEA 2014
<p>Olantxe agertu zan Joan basamortuan bateatzen eta biotz-barritzerako bateoa iragarten, pekatuen parkamenerako. Eta agana joiazan Judeako errialde osoa, eta Jerusalemaren guztiak, eta guztiak aren bateoa artzen eben Jordan-ibaian euren pekatuak autortuaz. MARKOS 1,4-5</p>	<p>1,4: Yon Bateatzaillea agertu zan basamortuan, pekatuen parkamenerako damu-bateoa iragarten. 5 Judea-aldeko guztiak eta Jerusalemen go guztiak arengana jo eta euren pekatuak autortuaz, Jordan-ibaian arengandik bateoa artzen eben.</p>	<p>1,4: Halantxe agertu zan Joan basamortuan, bateatzen eta bihotz-barritzeko bateoa iragarten, pekatuen parkamenerako. 5 Judea osotik eta Jerusalemdik arengana joaten zan jente guztia, eta, euren pekatuak autorturik, Joaneke bateatu egiten zituan Jordan ibaian.</p>

BIZKAIERAZKOA	EUSKARA BATUKOA
<p><i>Baina bere hobenaren ordain-diruaz solo bat erosi eban.</i> <i>Davidek ez eban zerura igon</i> <i>4,15 Orduan, Sanedrinetik irtetzeko agindu eutsien</i> <i>4,22: Izan be, miragarriri osaturiko gizonak berrogei urtetik gora zituan.</i> <i>5,15: Pedro igarotzean beronen gerizpeak behintzat bat edo beste ikutu egian. Egintzak</i> <i>7,2 Jainko aintzatsua gure arbaso Abrahami agertu zitzaion, oraindik Mesopotamian zegoela</i> <i>Apostoluen Eginak 7,17: 17 Jainkoak Abrahami zin eginiko agintzaria betetzeko garaia burbildu abala</i> <i>7, 19: beren haurrak zapuztera behartuz.</i> <i>Eginak 8,9: esanaz bera nonor handia zala.</i> <i>8,16 Izan be, oraindino hareetariko inorengana jatsi barik egoan Espiritua;</i> <i>Eginak 8,39 Uretatik urten ebenean,</i> <i>Eginak 9,39: Pedrok behingoan urten eban eurekin.</i></p>	<p><i>Baina bere hobenaren ordain-diruaz soro bat erosi zuen</i> <i>David ez zen zerura igo.</i> <i>Hala, biltzarretik ateratzeko agindu zieten</i> <i>Izan ere, miragarriri sendaturiko gizonak bazituen berrogeitik gora urte.</i> <i>5,15: Pedro igarotzean beronen itzalak bederen bat edo beste uki zezan.</i> <i>Egintzak 7,2 Jainko aintzatsua gure arbaso Abrahami agertu zitzaion, artean Mesopotamian zegoela</i> <i>8,9: norbait apartekotzat agertzen baitzuen bere burua.</i> <i>8,16 Izan ere, artean haietako inorengana jaitsi gabe zegoen Espiritua;</i> <i>Eginak 8,39 Uretatik atera zirenean,</i> <i>Eginak 9, 39 Pedro berehala atera zen haiekin</i></p>

Soroa erosi bizkaieraz eroa erosi da.

7,19: Hainbeste sinonimoren artean zer da zapuztu? Ba, grekora jo behar da, bizkaierakoak ez daki zer dan zapuztu-eta.

8,9koa: Hemen greko jatorrizkora jo da literalki itzultzeko; American Bible-ek be halaxe dakar, baita Kerexetak ere.

8,30an: **Urten** eta **atara** bizkaierazkoak dira, baina orain le-
kuz kanpo geratu da euskara batuan *irten dut*.

9,39: Perpausa osoa da desberdina.

3. BIBLIA IRAKUR EDO HAUSNAR

Testu denotatiboa edo konnotatiboa:

Irakurleak esangura denotatiboz nahiz konnotatiboz jaso lezake pasarte eder-bete hau. Hots, aldareko kandelak sinestendunarentzat sinbolo dira, baina sinesgabearentzat kandela, kandela da, eta kito!

Ekaitza

Eginak 27,13: Bazan hego-baize apur bat, eta euren asmoa bete ekiela uste eben danek; jaso zituezan, beraz, aingurak, eta Kretako itsasbazterrik itsasbazter joan ziran. 14 Baina handik laster, euroakilo deitzen eben urakan baize batek eraso eutson lehorraldetik itsasontziari; 15 baizeak eroian ontzia, eta, haizeari ezin eutsirik, noraezean joaten itzi genduan itsasontzia. 16 Kauda izeneko uharte koskor baten haize-ezkutupean igarotzean, ozta-ozta egin ginan salbatxaluparen jabe. 17 Ha ontzira jaso ostean, itsasontzia kablez estutu eben gogortzeko, eta, Sirteko hondar-metaren baten hondoa jotzeko bildurrez, aingura flotagarria bota eta noraezean jarraitu eben. 18 Bibaramonean, oraindik ekaitzak gogor jotzen ebanez, itsasontzia arintzen hasi ziran. 19 Hiruga-

rren egunean, ontziko tresneria itsasora jaurti eben marinelek. 20 Egun asko zanez ez eguzkirik, ez izarrik ez zala agiri, eta ekaitz zakarrak bere horretan jarraitzen ebanez, galdurik genduzan onik urteteko itxaropen guztiak.

Hausnar egin

Eliza katolikora hurreratzen dena, sarriegitan, erlijioaren aparatura heltzen da; historiara, eragin sozialera, eraikuntza ikusgarrietara, hileta-bateo-ekontzetako erritoetara. Baina, nekez, tresneria horren oina eta soina den bizipenera, sinesmen pertsonalera, finean eta buruan, Jainkoagana

Edonola ere, haserre barik onartu beharko luke pertsona onak, badirela sinestedunak -denak ere inozoak, norbait handiagoak eskutik eraman beharrekoak-, modernitateko zientziaren tsunamiak ito ez dituenak.

EGINAK 21,1: *Hareegandik aldendurik, itsasontzia hartu eta Koseraino joan ginan zuzenean; bibaramonean, barriz, Rodasera, eta handik Patarara.* “Joan ginan” dino, hau da, 1. pertsonan kontaktzen jarraitzen du 2.000 urtegarrenean. Horregatik da garrantzitsua BIBLIA norberak irakurtzea, testuaren benetakotasuna senti dezagun. Beste kontu bat izango da, lekukotasun zuzen horrek noraino zaramatzen. Argi geratzen dena da, Lukas Pablogaz dabilela eta batak nahiz besteak Jesus begiz eta gorputzez ezagutu eta ukitutako jenteagaz bizi izanak direla. Hots, Jesus berberaren berbak, bizitza eta sinesmena artez artez datozela gureganaino, bakoitzarenganaino. Beraz, Nazareteko judegu abstraktoa, historialariena, baino pertsonaz pertsona, berbaz berba, fedez fede, guganaino heldua dela Testamentu Barrikoa.

Bibliako testu argigarriak edo harrigarriak

Testamentu Barriko zenbait datu oso argigarriak dira. Esate baterako, ***jentetza ebilen Jesusen ondorik*** dioena. Zeren

holaxe baitakar Lukasek 19,3an: *Jesus nor zan ikusi nabirik ebilen Zakeo, baina ezin eban jentetzagaitik, txikia zan-eta.*

Bestalde, **mirariak, sendatzeak-eta, guztien aurrean, begibistan egiten zituen.** 18,35-43: *Jesus Jerikora hurreratu zalarik, itsu bat egoan eskean bide-ertzean jesarrita. 36 Jentea igarotzen barruntaturik, ha zer zan itaundu eban. 37 Jesus Nazaretarra igarotzen zala jakinarazo eutsoen. 38 Orduan, deadarka hasi zan: -«Jesus, Daviden Seme, erruki zakidaz!»39 Aurrean joiazanek gogor egiten eutsoen isildu eragiteko; baina barek oihu bandiagoz: -«Daviden Seme, erruki zakidaz!»40 Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu eutsen. Hurreratu zanean, itaundu eutson: -41 «Zer gura dozu Nik zuri egitea?»*

Itsuak erantzun: «Ikusi dagidala, Jauna!» 42 Jesusek esan eutson:- «Ikusi, bada; zeure sinismenak osatu zaitu».43 Batbatean, ikusi egin eban eta Jesusen ondorik joian, Jainkoa goratuz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu eban.

Dio autoreak liburuen sarrerak direla, gaian interesik, gogorik edo axolarik ez duten irakurleak uxatzeko. Guk geure gaiaren munarriak izenburuan bertan idatzi ditugu, inor ezustean harrapa ez dezagun.

Juan Luis Goikoetxea